

ARAZO EGOERA

NATURAKO SOINUEKIN JOLASEAN

ARLOA: Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

MAILA: Haur hezkuntza

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Naturan, entzumena argi jarriz gero, soinu eta kantu ederrak entzuten dira. Leku bakoitzak bere berezitasunak izan ohi ditu, txori moten araberako kantua nagusitzen delarik. Baina, gelditu eta isiltzen al gara, soinu zoragarri hauek entzutera?.

ARAZOA

Basoko bizidunek, soinu ederrak sortzen dituzte eta kontzertu horren entzule izan ohi gara. Baina, txoritxo batek, galdera bat egin digu: Gu beti kantuan gaude, baina isilik

Naturan hezten

egoten ere badakigu eta gustura entzungo genuke zuen kontzertua. Animatuko al zarete?

Natura musika instrumentuz osatua dago. Zentzumenak dantzan jarrita, elementu naturalen bidez, musika sortu daiteke, soinuak bakoitza bere aldetik jota edo erritmoak sortuz.

—

XEDEA

Naturako elementuen bidez, soinu eta erritmoak sortzea da helburu nagusia. Ingurune naturala, zentzumenen bidez aztertu eta elementu naturalak erabiliz, musika tresnak sortuz.

—

HELBURUAK

- Naturan gorputza kontrolatzen trebatzea, zentzumen pertzepzioa lantzea eta inguruaren ezaugarrietara egokitzea: mugimendua, oreka, koordinazioa.
- Naturarekin, zentzumenen bidezko gertuko harremana lortzea.
- Entzumenean arreta jarri eta naturako soinu ezberdinak identifikatzea.
- Soinu ezberdinak sortuko dituzten elementu naturalak aurkitzea.
- Soinuen bidez eta hitzak tartekatuz, erritmoak sortzea.
- Sortutako erritmo hori, gorputz adierazpenaren bidez antzeztea.

—

ATAZA

Naturako txoko batetara gerturatu eta jolas librearen bidez, eremuarekin gertuko harremana landuko da. Ondoren, entzumenean arreta jarri eta naturako soinuak entzun. Naturako elementuen bidez eta sormena erabiliz, soinuak sortuko dira. Erritmo eta melodiekin jokatzuz, kontzertu mundiala egingo duzue.

JARRAIBIDEAK

- Naturako txoko bat aukeratuko da, aniztasun aldetik aberatsa dena. Lekua aukeratzekoan, irizpide hauek lagun dezakete:
 - Adin ezberdinetako eta zuhaitz mota ezberdinez osatutako basoa.
 - Lurzoruan egur hilaren presentzia, esaterako, eroritako adar eta zuhaitzak.
 - Harkaitz eta harri solteak.
 - Erreka, iturri, putzu,... ura.
 - Leku nahiko laua.
- Jolas librearen bidez, denbora batean haurrek ingurunea ezagutzeko aukera izango dute, mugak garbi markatuta.
- Ereku lau batean, borobilean elkartu eta, begiak itxiko dira. Gogorarazi, isiltasuna beharrezkoa dela, soinuak entzuteko. Naturako soinetan jarriko da arreta. Gertuko soinetatik hasi eta urruneko soinetara iritsi arte. Behin denbora bat pasa ostean, entzundakoa aipatuko da denen artean.
- Haur bakoitzak, soinua sortzen duen elementu naturalak aurkituko ditu eta borobilean elkartu.
- Naturako soinuak imitatu daitezke edo beste soinua berri batzuk asmatu. Banan-banan bakoitzak, bere elementu naturalarekin soinua egingo du, gainontzekoek entzungo dute.
- Ipuin batekin lotura eginez, soinua ezberdinak elkartuko dituen erritmo edo melodia bat sortu daiteke. Horretarako, hitzak eta soinuak sartzea ere, egokia izan ohi da. Esaterako:

“TA-TA- makilak harri jo- TA- TA- makilak harria jo-TA-TA-makilak harria jo”
- Aurrez, soinua interesgarriak ateratzen dituzten elementu naturalak biltzea ere gomendatzen da. Haurrek aurkitzen dituztenei gehitzeko. Esaterako, txistu hotsa ateratzen duen belarra, makila lehorra eta harri bat, hosto lehorrak dituen adar bat astintzeko, hosto lehorrak eta pinuburuak eskuekin igurtzeko,...
- Metodologia eta erritmo horiek osatzeko, eskolan egindako txindatak, marakak, xilofonoa,... eraman daitezke. Instrumentuak egiteko, erritmo eta ideia interesgarriak dituen informazio iturri hau gomendagarria da:

Naturan hezten

- La escuela a cielo abierto liburua
- <https://mipedagogiamusical.com/como-crear-instrumentos-musicales/>
- <https://www.seispinguinos.com/instrumentos-de-la-naturaleza.html>
- Asmakizunak: denak begiak itxita daudelarik, norbaitek bildutako elementuetatik aukeratu eta soinua egingo du. Ondoren, besteek ea asmatzen duten zein elementu erabili duen.
- Egindako guztia borobilduko duen, kontzertu eder bat emanez, bukaera emango zaio.